

HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK ERAKUNDEKO FUNTZIONARIOEN PLANTILLAN HUTSIK DUDEN HOGEI KLINIKA LAGUNTAILEEN PLAZAK JABETZAN HORNITZEKO HAUTAKETA PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK.

Lehenbizikoa. Xedea eta lanpostuen ezaugarriak

Deialdi honen xede da behin betiko betetzea, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez, 20 funtzionario plaza. Lanpostu horiek Administrazio berezia eskalakoak dira, Teknikariak azpieskalakoak, Teknikari laguntzaileak klasekoak, C2 sailkapen taldekoak eta 2. hizkuntza eskakizuna dagokie derrigorrezkoa.

Lansariak:

- Destino-osagarria: 14. maila.
- Berariazko osagarria: 15.630,02 euro.

Funtzioak:

Zaharren egoitzako egoiliarren ongizateaz arduratzea, hauen beharrak asetuz eta autonomi pertsonala bermatuz, solairuko arduradunaren gainbegiratupean.

LANPOSTUAREN OINARRIZKO FUNTZIOAK

Egoiliarren garbitasun pertsonalaz arduratzea: duxatu, jantzi, arropak aldatu, hidratatu, komunera eraman, etab.

Egoiliarren elikadura eta hidratazioaz arduratzea: janaria banatzea, ahora ematea, dietak kontrolatzea, ura ematea, medikazioa banatzea, etab. eta ziurtatu hartzen dutela.

Mugikortasuna ziurtatzea eta mantentzea. Altxatzeko eta oheratzeko edota komunera joateko laguntza eskaintzea.

Ezinduta daudenei, postura aldaketa egitea.

Oheak prestatzea eta garbitzea.

Erizainaren aginduz, termometroak, gernu laginak, supositorioak, etab. jartzea.

Medikazio egokia prestatzea, txikitzea eta banatzea.

Atentzio pertsonala eta laguntza psikologikoa ematea: orientazioa.

Edozein aldaketa fisiko edo psikologiko detektatzea, egoera horren aurrean neurri egokiak hartuz.

Eguneroko gora- beherak idatziz eta ahoz adieraztea.

Arduradunarekin eta gainerako pertsonalarekin bilerak egitea.

Arropak garbitzera bota eta garbiak egoiliarren armairuetan jartzea.

Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

Deialdiko plazak 2019ko Lan Eskaintza Publikoan sartzen dira (2020ko urtarrilaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Deialdiko plazei lotutako postuak 2. Hizkuntza Eskakizuna dute, eta derrigortasun data amaitua.

Hautaketa sistema lehiaketa-oposizioa da. Deialdia oinarri hauetan eta oro har aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

Deialdiko plaza kopurua handitu ahalko da, proposatutako izangaien azken kalifikazioak argitaratu baino lehen sortzen diren plaza hutsekin. Hala gertatuz gero, ez da beharrezkoa izango eskaerak aurkezteko beste epe bat irekitzea. Lanpostu handitze hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Udalaren webgunean argitaratuko da. Bertan, hizkuntza eskakizuna betetzeko nahitaezko data esleituta duten lanpostuen kopurua jasoko da, eta, edonola ere, azken kalifikazioak argitaratu aurretik adostu eta argitaratu beharko da.

Oposizio lehiaketako probak gainditu ondoren deialdiko plaza lortzen ez duten hautagaiak, klinika laguntzaile lan-poltsa batean sartuko dira, xedapen gehigarri bakarrean adierazitakoaren arabera.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Hauta probetan parte hartu nahi duen pertsona orok ondoren adierazi diren betekizun orokorrak bete beharko ditu:

2.1.1. Titulazioa eta euskara gaitasuna:

LH1 Osasun arloko edo Soziosanitario arloko titulua edo gradu baliokidea edukitzea. Xede horretarako, baliokide titulazioak kontuan hartuko dira:

a) Erizaintzako zainketa osagarrietako teknikariaren titulua -apirilaren 7ko 546/1995 Errege Dekretua-, edo, baliokideak direnez, Klinikako teknikari laguntzailearen, Psikiatriako teknikari laguntzailearen eta Erizaintzako teknikari laguntzailearen titulua (apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretua)-, edo, hala badagokio, argitaratu eta ondorio profesional berak dauzkan beste edozein titulu.

b) Mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko teknikariaren titulua -azaroaren 4ko 1593/2011 Errege Dekretua-, edo, baliokidea denez, Arreta soziosanitariorako teknikariaren titulua -maiatzaren 2ko 496/2003 Errege Dekretua-, edo, hala badagokio, argitaratu eta ondorio profesional berak dauzkan beste edozein titulu.

c) Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren titulua -uztailaren 13ko 1074/2012 Errege Dekretua-, edo, baliokidea denez, abenduaren 22ko 2061/1995 Errege Dekretuan ezarritako Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren titulua, zeina ezarri baitzen 2017ko abenduaren 30ean zaintzaileen edo gerokultoreen lanbide-kategorian lan egiten zuten profesionalentzat -Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren eta Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren Erabakia, 2017ko urriaren 19ko BOE-.

Eskatzen den titulazio hori atzerrian lortua izanez gero, Espainiar Estatuak dagokion homologazioa emana eduki beharko du, eta hori, organo eskudunak emandako egiaztagiraren bidez egiaztatuko da, eta ez da aski izango homologazio hori eskatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkezte hutsa.

Era berean, Europar Batasuneko kide den edozein estatutako nazionalak beste estatu kide batzuetan lortutako tituluekin batera, organo eskudunak (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak) emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da

Europako Erreferentzia Markoaren B-2 gaitasun maila (Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundean euskaraz lan egiten dugu) egiaztatzea, hautaketa prozesuan zehar egingo diren azterketen bidez edo indarreko araudiaren arabera eskatutako hizkuntza eskakizuna frogatu edo baliozkotuko duen dokumenturen bat aurkeztuz.

2.1.2. Nazionalitatez, espainiarra izatea.

Era berean, enplegu publikoetara funtzionario gisa sartzeko hauta probetan parte hartu ahal izango dute, nazionalitate espainiarra duten pertsonen baldintza berberetan:

- a) Europar Batasuneko Estatu kideetako herritarrak.
- b) Espainiaren eta Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek, duten naziotasuna dutela ere, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; eta baita ere herritartasuna dunaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, inoren mende bizi badira.
- c) Europar Batasunak egin dituen, Espainiak berretsi dituen eta langileen zirkulazio librea dakarten nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartuta dauden pertsonak.

Hala ere, a), b) eta c) letretan ezarritako kasuetakoren batean sartuta dauden pertsonak ezin izango dute enplegu publiko hauetara sartu: zuzenean edo zeharka botere publikoa egikaritzen parte hartzea edo Estatuaren edo Administrazio publikoaren interesak babestea helburu duten eginkizunetan parte hartzea dakarten enplegu publikoetara. Halakoetan, enplegu publikoetara sartzeko ezintasuna berariaz jasota geratuko da deialdiko oinarri berezietan.

2.1.3. 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adin muga gaindituta ez izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Hala ere, gutxienez 18 urteko adina izatea eskatu ahal izango da agintea erabiltzea dakarten edo osasunerako arriskutsu diren eginkizunak dituzten gorputz eta eskaletara sartzeko. Halakoetan, gutxienez 18 urteko adina izan beharra berariaz jasota geratuko da deialdiko oinarri berezietan.

2.1.4. Zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea.

Betekizun hori betetzen dela frogatu beharko da hauta probak gainditutakoan, mediku azterketa eginez.

2.1.5. Diziiplina espedienteren baten bidez edozein Administrazio Publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioetako zerbitzutik banatuta ez egotea, eta ebazpen judizial bidez gaitasungabetze erabatekoa edo berezia ez izatea enplegu edo kargu publikoetarako, banatu edo gaitasungabetu den kidegoan edo eskalan sartzeko.

Beste estaturen batekoa izanez gero, gaitasuna kenduta edo antzeko egoeraren batean ez egotea, eta bere estatuan enplegu publikoan jardutea galarazten dion diziiplina zigorrik edo antzekorik jaso gabea izatea.

Parte hartzeko baldintzak betetzea egiaztatzen duten dokumentuak hautaketa prozesuaren amaieran eman behar dituzte behin betiko zerrendan aukeratutzat agertzen diren izangaiek, bederatzigarren oinarrian jartzen duen eran. Dokumentu horiek aurkeztu beharrik ez dago Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen zerbitzura lan egindako langileen espediente pertsonalean baldin badaude.

Hirugarrena. Parte hartzeko eskabideak aurkeztea.

3.1. Parte hartzeko eskabideak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko presidenteari zuzenduko zaizkio. Eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira eskariak. Eredu hori Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen bulegoetan emango da (helbidea: Sandiusterra kalea 1. zenbakia). Era berean, parte hartzeko eskabidearen inprimakia eskuragarri izango da Hernaniko Udalaren webgunean: www.hernani.eus.

3.2. Parte hartzeko eskabideek baldintza hauek bete behar dituzte onartuko badira:

a) Izangaiek eskabideko atal guztiak bete behar dituzte, eta adierazi behar dute aurkeztu diren deialdiaren oinarrietan parte hartu ahal izateko eskatutako betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela.

b) Parte hartzeko eskabideak aurkezteko, **hogei (20) egun naturaleko epea** izango da. Deialdiaren laburpenaren iragarkia Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Eskabideak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (helbidea: Sandiusterra kalea, 1. 20120 Hernani). Era beran, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua adierazitako edozein tokitan ere aurkeztu daitezke.

Correos konpainiaren bulegoetan aurkezten diren parte hartzeko eskabideak gutun azal irekian entregatuko dira, Correosko langileek data eta zigilua jar diezaieten, ziurtatuak izan baino lehen, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Kasu honetan bakarrik joko da eskabideak Posta bulegoan entregatu ziren egunean aurkeztu direla Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Erregistro Orokorrean. Eskabidea da zigilua izan behar duena.

c) Frogak egiteko baldintza bereziak behar izanez gero eskara orrian jaso beharko dira.

3.3. Datu pertsonalak babestea.

Izangaiek hauta probetan parte hartzeko eskabide inprimakia aurkezteak berekin dakar inprimaki horretan jasotako bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematea, eta berekin dakar aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, Udalaren webgunean eta hauta probetako oinarri arautzaileak aplikatuz erabiltzen den beste ezein hedabidetan identifikatuak izateko baimena ematea ere. Orobat, berekin dakar izangaiek baimena ematea Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak haren datu pertsonalak trata ditzan hautapen prozesu horretatik sortutako lan poltsak kudeatzeko.

Bide beretik, hautapen prozesua egin artean hautagaiek emandako dokumentazioa erabiltzeko baimena ere adierazten du hautaketa prozesuan parte hartzeak.

Laugarrena. Izangaiek onartzea.

4.1. Onartu ahal izateko, parte hartu ahal izateko eskatutako betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituela adierazi behar du izangaiek eskabidean. Adierazpen hori izangai bakoitzak bere ardurapean

egingo du, eta onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi betekizun horiek betetzen dituela onartzen zaionik. Beraz, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak eskubidea du izangaia hautapen prozesutik at uzteko, baldin izangaia eskatzen zaion unean betekizunak betetzen dituela frogatzen ez badu.

4.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hilabete joan baino lehen, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behingo zerrenda onartuko du hori Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak. Zerrenda hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen iragarki oholean eta Hernaniko Udalaren web orrian (www.hernani.eus) argitaratuko da. Ondoren, GAOn argitaratzen den egunetik hamar (10) egun izango dira ez onartzeko izan diren akatsak edo gabeziak zuzentzeko edota esandako zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko.

Inork ere ezereen erreklamaziorik aurkeztu ez edo dei-egileak ezereen hutsik aurkitu ez badu, behin-behingo zerrenda behin betiko joko da, eta halaxe jakinaraziko da, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordearen ebazpen baten bidez. Ebazpen hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen iragarki oholean eta Hernaniko Udalaren weban argitaratuko da.

Erreklamaziorik izaten bada, beste ebazpen baten bitartez onartu edo baztertuko dira, eta, era berean, behin betiko zerrenda ere onartuko da. Zerrenda hori aurreko paragrafoan esanda bezala argitaratuko da.

4.3. Behin betiko baztertutako izangaiek berraztertze errekurtsua aurkeztu diezaiokete ebazpena hartu duen Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordeari, ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabete joan baino lehen, edota zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegira jo eta han aurkeztu errekurtsua, bi hilabete baino lehen.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen iragarki oholean eta Hernaniko Udalaren weban argitaratuko dira izendapenak, onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda behin-behingoarekin batera.

Bosgarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

5.1. Izendapena.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko Zuzendaritza Batzordeak Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatuko ditu. Epaimahai Kalifikatzailea arduratuko da hauta proben garapenaz eta kalifikazioaz.

5.2. Osaera.

Epaimahai Kalifikatzaileak kide hauek izango ditu:

Epaimahaiburua, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko funtzionario bat.

Epaimahaiburuaren ordezkoa, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko funtzionario bat.

Epaimahikideak:

- 1.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko erakundeko teknikari bat edo bere ordezko funtzionarioa.
- 2.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkaritza bat (HAEE) edo bere ordezko funtzionarioa, deialdian eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketa zuzentzeko.
- 3.- Kabiako teknikari bat edo bere ordezko funtzionarioa.
- 4.- Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko teknikari bat funtzionarioa eta bere ordezkoa.

Idazkaria: Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko Zuzendaritza Batzordeko idazkari ordea.
Ordezkoa: Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko Zuzendaritza Batzordeko idazkaria

Egoki irizten den probetan, Epaimahaiak dagokion gaian adituak diren aholku-emaileen laguntza eskatu ahal izango du; aholkulari aditu horiek hitza bai baina botoa emateko eskubiderik ez dute izango. Aholkulariek beren espezialitate teknikoetan soilik lagundu ahal izango dute, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorria.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak kide antzeko organoetz jasotzen dituen xedapenetara egokitu beharko du epaimahaiak bere jardura.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun kideen erdiak baino gehiago etorri ez badira; nolahi ere, presidenteak eta idazkariak bertan egon beharko dute beti. Erabakiak hartzeko, botoen gehiengoa beharko da, eta berdinketarik bada, lehendakariaren botoak erabakiko du. Epaimahaiko Idazkariak ez du botoa emateko eskubiderik izango.

Epaimahaikideek parte hartzeari uko egin nahi badiote, presidenteari jakinarazi beharko diote eta izangaiek epaimahaikideak arbuiaitu ditzakete, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraiki.

Epaimahaiak, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipio gidariek bideratuta, erabateko independentziaz, diskrezio teknikoaz eta objektibotasunez jardungo du, eta haren proposamenek organo eskuduna lotuko dute, izendatzeko unean.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusitako gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Epaimahaiak dagozkion neurriak hartuko ditu ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, baita ariketak zuzentzeko ere, ahal den guztietan, eta saiaturiko da inork ez jakiten parten hartzen duten pertsonen izenak.

5.3. Prozeduran parte ez hartzea eta errefusatzea.

Epaimahaiko kideek eta aholkulari espezialistek jarduteari uko egin beharko diote, edota interesatuek edozein unetan ezetsi ahal izango dituzte, baldin eta 2015eko urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 23 artikuluan ezarritako egoeraren bat gertatzen bada edo dagokion deialdia argitaratu aurretiko bost urteetan hauta probetarako izangaiak prestatzeko lanetan aritu badira kide eta aholkulari horiek.

Epaimahaia eratzeko bilkuran, epaimahaiburuak egoera horietako batean ere ez izatearen adierazpen formala egingo du, eta ondoren epaimahaiko gainerako kideei galdatuko die horrexen adierazpen formala egin dezaten. Eratzeko bilkuran parte hartu ez duten epaimahaiko kideek, eta aholkulari espezialistek, adierazpen formal hori egingo dute parte hartzen duten lehendabiziko bilkuran.

5.4. Jarduteko arauak.

Epaimahaiak, deialdi bakoitzean aplikagarri diren oinarriez gain, 2015eko urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 15. artikulutik 18.era bitartean ezarritako arauak ere bete beharko ditu bere jardunean. Epaimahaikideak lehendakariaren aginduz bilduko dira, aldez aurretik idazkariak bilerarako deia egin duela. Epaimahaia bilerak egin, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko balio osoz eratzeko, nahitaezkoa da lehendakaria eta idazkaria (hala dagokionean, haien ordezkariak) eta gutxienez epaimahaikideen erdia bileran izatea edo urrutitik parte hartzea.

Lehenengo bilera –Epaimahai Kalifikatzailea orduan eratuko da– hauta probak hasi baino lehenago egingo da, behar adina denborarekin. Dena dela, idazkaria eta kide anitzeko organoko kide guztiak (edo, hala badagokio, haien ordezkariak) bertan badaude edo urrutitik parte hartzen ari badira, kide anitzeko organo gisa balio osoz eratu ahal izango dira bilerak egin, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko, aldez aurretik deialdirik egin behar izanik gabe, hala erabakitzen badute kide guztiak.

Epaimahaikide guztiak izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, hizpidea bai baina botorik ez baitu izango hark. Bileran daudenen botoen gehiengoarekin hartuko dira erabakiak. Berdinketak lehendakari jarduten duenaren kalitatezko botoaren bidez erabakiko dira.

Epaimahaiko kide titularren bat kanpoan edo gaixorik bada, edo, oro har, bidezko arrazoirik bada, ordezkoa jarriko da haren tokian.

Epaimahaiburuen eta haren ordezkoaren postuak hutsik geratu badira, bertan ez badira, gaixo badira edo legezko beste kausaren bat gertatu bazaie, epaimahaikide batek ordeztuko ditu, epaimahaia izendatzeko ebazpenean ageri diren ordenan.

Idazkari titularren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, kanpoan edo gaixorik bada edo legezko bestelako kausaren bat gertatzen bada, edozein epaimahaikidek bete ahal izango du kargu hori, baldin eta kideen botoen gehiengoak hala onartzen badu.

5.5. Ahalmenak.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren arduradun izango da eta deialdiko oinarriak betetzen direla bermatuko du. Bere jardunean, independentziaren eta eskumenekotasun teknikoaren printzipioak bermatuko dira.

Era berean, oinarri hauek eta deialdi bakoitzeko oinarri bereziak ezartzean sortutako zalantza guztiak Epaimahaiak argitu behar ditu, antolamendu juridikoaren arabera. Deialdia ongi garatzeko beharrezko erabakiak hartu behar ditu, betiere oinarrietan jaso ez diren kasuetarako zer irizpide hartu behar diren zehaztuz.

Idazkariari dagokio kide anitzeko organoaren jardueren legezotasun formal eta materiala zaintzea, jardura horiek egiaztatzea eta eratzeko eta erabakiak hartzeko prozedura eta arauak errespetatzen direla bermatzea.

Epaimahaiak, hautaketa prozesuko edozein unetan, jakiten badu izangaietako batek ez dituela deialdiari dagozkion baldintzak betetzen, interesatuarekin audientzia izan eta prozesutik bazter dezan proposatuko dio hartarako aginpidea duen organoari, izangaiak eskarian adierazitako zehaztasun gabezien edo faltsukerien berri ere emanda.

Oposizio aldiko ariketa idatzien edukiaren isilpekotasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu epaimahaiak, eta baita azterketak, ahal dela, izangaien izena jakin gabe zuzentzea bermatzeko behar direnak ere.

Izangairen baten azterketa orrietan oposiziogilea nor den jakiteko moduko markak edo zeinuak ageri badira, edo izangaiak ariketak egitekoan iruzurren bat egiten badu, epaimahaiak baztertu egin ahal izango du izangai hori.

Epaimahaiaren ebazpenek lotetsi egiten dituzte udal organo eskumendunak. Hala ere, organo horiek, hala badagokie, ebazpen horiek berraztertu ahal izango dituzte, 2015eko urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

5.6. Egoitza.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahai kalifikatzaileen egoitza (helbidea: Sandiusterrri kalea, 1. 20.120 Hernani).

Seigarrena. Deialdiak, jakinarazpenak eta informazioa.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da hautapen prozesu bakoitzeko lehenengo ariketa egiteko deialdia, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera. Deialdi bakoitzeko gainerako komunikazioak eta jakinarazpenak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko Iragarki Taulan argitaratuko dira.

Era berean, Udalaren webgunean jarriko da deialdi bakoitzari buruzko informazioa, interesdunen eskura. Web orriak informazioa emateko baino ez du balio. Jakinarazpenak egiteko bide ofizialak aurreko paragrafoan adierazitakoak dira.

Webgunean ondorengo hauek kontsultatu ahal izango dira, besteak beste: deialdi bakoitzeko oinarriak; onartuen eta baztertuen behin-behingo eta behin betiko zerrendak; ariketen egunak; eta emandako kalifikazioak.

Deialdi bakoitzeko oinarri berezietan, beste bide batzuk erabiltzea ezarri ahal izango da, baina informazioa emateko baino ez, betiere.

Zazpigarrena. Hautaketa prozesua.

7.1. Izangai bakoitzak eskabide orrian adierazi beharko du oposizio faseko probak Euskal Autonomia Erkidegoko zer hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen.

7.2. Oposizio aldia.

7.2.1. Ariketak. Nahitaezkoak eta baztertzailak

— Lehenengo ariketa. Oinarri hauen I. eranskinean dagoena. Ariketa honetan, gehienez, 10 puntu lortuko dira. Gutxienez, 5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

— Bigarren ariketa. Oinarri honetan II. eranskinean jasotako gai zerrenda espezifikoaren edukiari buruzko galderak idatziz erantzun behar dira.

Epaimahaiaren irizpidearen esku dago azterketa mota aukeratzea; azterketan aukerako erantzunak ematen diren galdera sortak egin daitezke, edo aipatutako gai zerrendako gaien inguruan galdera edo gai zehatzak aukeratu eta idatziz garatzekoak izan daitezke ariketa gainditzeko.

Ariketa honetan, gehienez, 50 puntu lortuko dira. Gutxienez, 25 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Ariketa horietaz gain hautaketa prozesuan zehar HAEeek euskara azterketak egingo ditu, deialdi honetan eskatuko hizkuntza eskakizuna agiri bidez egiaztatu ez duten hautagaientzat.

7.2.2. Hautaketa probak ez dira eskabideak aurkezteko epea bukatu eta 15 egun pasatu arte behintzat hasiko. Lehenengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen iragarki taulan eta Hernaniko Udaleko webean argitaratuko dira. Hortik aurrerako ariketak egiteko iragarkiak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen iragarki taulan eta Hernaniko Udaleko webean argitaratuko dira.

Ariketa bat erabat bukatu eta hurrengo hasi arte hirurogeita hamabi ordu behintzat pasa behar dira, baina ez berrogeita bost egun natural baino gehiago. Hala ere, libre da hurrengo paragrafoan aurreikusitakoa ere.

Epaimahaiak, nahi izanez gero, ariketa bat baino gehiago egun berean egitea erabaki dezake, eta ariketen hurrenkera aldatzeko eskubidea ere badu. Horrelakoetan, aurreko ariketa gainditu dutenen ariketak baino ez dira ebaluatuko.

7.2.3. Izangaiei deialdi bakarra egingo diete ariketa bakoitzerako. Epaimahaiak ariketak egiteko ezarritako lekuan, egunean eta orduan azaltzen ez diren izangaiek hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira behin betiko, baita ezinbesteko arrazoiak izanda ere.

Hala ere, proba bat atzeratzeko erabakia hartu ahal izango da, baldin eta atzerapenak berekin badakar emakumeei tratu kaltegarria saihestea, haurdunaldia nahiz amatasuna dela-eta. Atzeratzeko eskaerarekin batera, alegatzen duen gorabehera egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu kasuan kasuko izangaiek.

Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiei edozein unetan eska diezaike identifika daitezen. Beraz, izangaiek, ariketak egitera datozenean, Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo gidabaimena ekarri beharko dute; edo, atzerritarra izanez gero, dokumentu horien baliokideren bat.

7.2.4. Oposizio aldiko ariketa bakoitza bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiek lortutako behin-behingo emaitzak argitaratuko ditu. Argitaratze horren biharamunetik hasita, izangaiek 5 egun balioduneko epea izango dute beren ariketa eskuratzeko; eta, gero, beste 5 egun balioduneko epea, Epaimahai Kalifikatzaileari ariketa horri buruzko erreklamazioak aurkezteko. Epe hori bukatutakoan, aurkeztu diren erreklamazioak —aurkeztu bada— ebatzi eta ariketan izandako behin betiko emaitzak argitaratuko ditu epaimahaiak. Era berean, interesdun bakoitzari bere erreklamazioaren ebazpen arrazoituaren jakinarazpen pertsonala bidali ahal izango dio.

7.3. Euskara.

7.3.1. Deialdiko plazei lotutako lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna HE 2 da, eta derrigortasun data amaituta dago; beraz, hizkuntza eskakizun horri dagokion euskararen ezagutzamaila egiaztatu behar da, parte hartu ahal izateko.

7.3.2. Lanpostu hautarako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko (Europako Erreferentzia Markoaren **B-2 gaitasun maila**) dagokion hizkuntza eskakizunaren agiria edo balio bereko titulua edo egiaztagiria aurkeztu behar da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena; nahiz dekretu hori aldatzen edo ordeztzen duten arauak), edo, bestela,

euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartuta izan eta, horregatik, euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuetsita egotea egiaztatu beharko da (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko dena; nahiz dekretu hori aldatzen edo ordezten duten arauak); edo hautaketa prozesuan zehar egingo diren euskara azterketak gainditu behar dira.

7.3.3. Epaimahai Kalifikatzaileak argitaratuko du hautaketa prozesuaren barruan euskara proba noiz egingo den. Proba egiteari dagokionez, aplikagarri da 7.2.3 oinarrian deialdi bakarrari eta izangaien identifikazioari buruz ezarritakoa.

Euskara proba nahitaezkoa eta baztertzalea izango da. Euskara proba bat bera izango da izangai guztientzat.

Ariketa horretan, izangaiari gai edo ez gai kalifikazioa jarriko zaio. Gai kalifikazioa lortu behar da plazak betetzeko.

7.3.4. Hala ere, aurreko idatz zatian aipatutako euskara proba egitetik salbuetsita izango dira deialdiko plazei dagozkien hizkuntza-eskakizuna aurrez lortua dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu dituztenak, edo unean-unean indarrean diren arauei jarraituz hizkuntza-eskakizun horrekin baliozkoturiko titulu edo egiaztagiriren bat aurkeztu dutenak. Halaber, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartuta dituztela eta, horregatik, euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuetsita daudela egiaztatzen duten agiriak aurkezten dituztenek ere ez dute proba hori egin beharko.

Dena delako hizkuntza-eskakizuna edo harekin baliozkoturiko egiaztagiria nahiz titulua, edo salbuespena dakarten ikasketen onarpena, euskarako lehenengo ariketa egin baino lehenago lortuta izan behar dute izangaiek.

Euskara proba egitetik salbuetsita daudenek, egiaztagiria originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte, hautatze prozesuan parte hartzeko eskabide orriarekin batera edo hautatze prozesuaren aldiaren. Agiri horiek aurkezteko azken eguna euskarako lehenengo ariketa egiteko eguna da.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen lan egin dutenek, hala ere, hizkuntza eskakizunaren jabe direla egiaztatzen duen agiria dagoeneko beren espediente pertsonalean izanez gero, ez dute agiri hori aurkeztu beharrik izango.

7.3.5. Euskara proba egin ondoren behin-behineko emaitzak argitaratuko dira. Zerrenda horretan hizkuntza eskakizuna agiri bidez egiaztatu duten hautagaiak ere azalduko dira.

Horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hamar lanegun izango dituzte interesatuek egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioak egiteko epea bukatu, eta aurkeztu diren erreklamazioak –baten bat aurkeztu bada– ebatzi ondoren, epaimahaiak behin betiko emaitzak argitaratzea aginduko du.

7.3.6. Lanpostuek nahitaezko hizkuntza-eskakizuna dute eta ezingo dituzte bete, oinarrietan zehaztutako eran eskakizun hori betetzen dutela egiaztatu ez duten izangaiek.

7.4. Lehiaketa aldia.

7.4.1. Lehiaketa fasean, oposizio aldia gainditu duten izangaiek aurrez alegatu eta egiaztatu zituzten merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira.

Epaimahai Kalifikatzaileak, betiere hautaketa prozesuaren barruan, hamar egun balioduneko epe bat irekiko du, balioztatzeakoak diren merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeako. Epaimahaiak, merezimenduak balioztatu eta izangai bakoitzari baremo horien arabera dagokion puntu kopurua esleituko dio.

Lehiaketa aldia ez da baztertzaileria izango, eta aldi horretan lortutako puntuak ezin izango dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

Esperientzia profesionala: Gehienez 25 puntu emango dira.

Adiministrazio publikoan egindako zerbitzuak geriatría edo adinekoen egoitzetan klinika laguntzaile bezala edo baliokidea, 0.3 hilabeteko eta gehienez 25 puntu

-Enpresa pribatuan egindako zerbitzuak geriatría edo adinekoen egoitzetan klinika laguntzaile bezala edo baliokidea, 0.15 hilabeteko eta gehienez 22,5 puntu

-Adiministrazio publikoan egindako zerbitzuak klinika laguntzaile bezala edo baliokidea, 0.075 hilabeteko eta gehienez 20 puntu

--Enpresa pribatuan egindako zerbitzuak klinika laguntzaile bezala edo baliokidea, 0.035 hilabeteko eta gehienez 15 puntu

Esperientzia profesionala alegatutako epeetako egunak batuz zenbatuko da. 30 egunen baturak hilabete bat osatuko du eta 30era heltzen ez diren egunak baztertu egingo dira.

Prestakuntza:

Deialdian jasotako postuaren funtzio propioekin lotutako prestakuntza osagarria baloratuko da, 15 puntu arte, ondoren agertzen denaren arabera:

a) Balioztatuko da beste titulu akademiko ofizial batzuk izatea, parte hartzeko nahitaez eskatutakoaz gain, baldin eta deitutako plaza atxikitutako postuen funtzioekin zerikusia badute, gehienez 10 puntu, 2 puntu titulazio bakoitzeko.

b) Lanpostuarekin zerikusi duten gaiei buruzko prestakuntza osagarria eta, oro har, berariaz lanekoak ez direlarik ere (praktika, ikastaroak, eta abar), epaimahaiaren iritziz izangaien hobekuntza profesionalaren aldekoak izan diren jarduerak. Gehienez, 5 punturekin balioztatuko da, ondoren agertzen denaren arabera:

Postuen funtzio propioekin lotuta egiaztatutako ikastaroen hamar ordu bakoitzeko 0,20 puntu emango dira. Helburu horrekin, ikastaro guztien orduak batuko dira; hamar osatzera heltzen ez diren orduak ez dira kontuan hartuko.

Azken 20 urteetan eman diren 10 orduko ikastaroak edo iraupen luzeagokoak besterik ez dira kontuan hartuko, beti ere eskabide orria aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzen hartuta.

7.4.2. Merezimenduak alegatzeko, inprimaki normalizatu bat eskuratu ahal izango dute izangaiek. Inprimaki hori behar bezala beteta aurkeztu beharko dute beren merezimenduak baliozta daitezen nahi duten izangai guzti-guztiei; horretarako, izangaiak dituen merezimendu bakoitza banaka zehaztu beharko du.

Merezimenduak egiaztatzeako, hiru egoera hartu behar dira aintzakotzat:

a) Izangaiak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen lan egin ez duenean, alegatutako

merezimendu guztiak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu. Agiri horiek behar bezala zenbakituta aurkeztu behar dira, eta originalak edo benetako kopiak izango dira.

b) Izangaiak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundean lan egin badu, baina alegatutako meretzimenduak egiaztatzeko agiriak bere espediente pertsonalean jasota ez baditu, agiri horiek aurkeztu beharko ditu, behar bezala zenbakituta. Agiri originalak edo benetako kopiak izan behar dira.

c) Izangaiak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundean lan egin badu eta alegatutako meretzimenduak egiaztatzeko agiriak bere espediente pertsonalean BAI, jasota baditu, ez da agiri horiek aurkeztu beharrik izango, baina nahitaezkoa izango da agiri horiek hor direla alegatzea horretarako zehaztutako inprimaki normalizatuan.

Bermatuta dago izangai bakoitzak bere espediente pertsonalean dokumentuz egiaztatutako meretzimenduak ezagutzeko bidea izatea. Horretarako, aurrez eskatu eta bere espedientearen edukia egiaztatu ahal izango du Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Pertsonal atalean.

Izangai bakoitzak alegatu dituen eta espediente pertsonalean dokumentuz jasota dauden meretzimenduei jarraituz, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak informazioa erraztuko du. Informazioa Epaimahai Kalifikatzaileari bidaliko zaio, espediente pertsonalarekin batera, dagokion balioztatzea egin dezan.

7.4.3. Era berean, hautaketa prozesutik kanpo gelditutako izangaiek ere alegatu, egiaztatu eta aurkeztu behar dituzte, zer gerta ere, beren meretzimenduak, baldin eta kanporatze horren aurka erreklamaziorik aurkeztu badute eta erreklamazioa behin betiko ebazpenaren zain baldin badago. Meretzimendu horiek 7.4.1 eta 7.4.2 oinarrietan adierazitako epe eta baldintza berberetan alegatu eta egiaztatu behar dira.

7.4.4. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik bildutako meretzimenduak bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, aintzakotzat hartu behar da 7.3.4 oinarrian euskarari buruz ezarritakoa.

Meretzimenduak aurkezteko jarritako epean adierazi eta egiaztatzen ez diren meretzimenduak ez dira inolaz ere balioetsiko. Ez dira balioetsiko, orobat, aipatzen dituzten meretzimenduak balioetsi ahal izateko dagokion baremoaren arabera izan behar diren datuak ez dituzten dokumentuak ere.

Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 96.4 artikularen arabera, behin-behingo langileentzako aurreikusitako postuetan egindako zerbitzuak ez dira balioetsiko, ez eta bekak eta prestakuntza praktikak ere. Era berean, lehiaketa aldia ez dira kontuan izango 2.1.5. oinarriaren arabera hautaketa prozesuan parte hartzeko betekizun gisa aurkeztu beharreko tituluak.

7.4.5. Urteka, seihilekoka edo hilabeteka baloratzen diren meretzimenduak kalkulatzeko, alegaturiko aldiak batuko dira, egun kopuruak kontuan hartuz, eta, ondoren, erreferentzi aldia baino txikiagoak diren hondarrak baztertuko dira. Ondorio horietarako, 365 egun naturalen batura hartuko da urtetzat; 180 egun naturalen batura seihilekotzat; eta 30 egun naturalen batura hilabetetzat.

Lan egin duten egunak kontutan izango dira, edozein lanaldia izan de ere. Kontabilizatzeko egunak, Asegurantzaren Sozialen dauden alta egunak kontutan izango dira.

7.4.6. Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduak balioztatuko ditu eta lehiaketa aldiko behin-behingo kalifikazioak argitaratuko ditu. Kalifikazio horiekin batera, dokumentuak zuzendu behar dituzten izangaien zerrenda argitaratuko da. Zerrenda horretan, berariaz aipatuko da zein merezimenduren egiaztagirak zuzendu behar diren. Argitaratze horren biharamunetik hasita, izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki deritzeten erreklamazioak egiteko eta dagozkien zuzenketak egiteko. Epe hori bukatutakoan, aurkeztutako erreklamazio eta zuzenketak aztertuko ditu epaimahaiak, eta gero lehiaketa aldiko behin betiko emaitzak argitaratuko ditu. Era berean, interesdun bakoitzari bere erreklamazioaren ebazpen arrazoituaren jakinarazpen pertsonala bidali ahal izango dio.

Zortzigarrena. Azken kalifikazioak. Lanpostuak aukeratu eta esleitzea.

8.1. Azken kalifikazioak.

Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa honela kalkulatu da: oposizioaldian ateratako puntuak gehi lehiaketaaldian ateratakoak.

Azken kalifikazioan berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek beteko dira, hurrenez hurren:

1. Oposizioaldian puntuaziorik handiena lortzea.
2. Oinarri berezietan zerrendatutako merezimenduetan puntu gehien lortzea, oinarri horietan jarritako hurrenkeran.
3. Hala ere berdinketarik hautsi ezean, zozketaz egingo da. Zozketara pertsona interesatuak joan ahal izango dira.

8.2. Azken kalifikazioak, lehentasun ordena.

Epaimahai Kalifikatzaileak azken kalifikazioak eta kalifikazio horietatik ondorioztatutako lehentasun ordena zehaztu eta gero, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordera eramango ditu. Organo horrek, Epaimahaiak igorritakoari guztiz loturik, ebazpena emango du. Ebazpen horren bitartez, azken kalifikazioen zerrendak argitara daitezzen aginduko du.

Bederatzigarrena. Betebeharrak betetzea egiaztatzea.

9.1. Aukeratutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratutakoan, 20 egun naturaleko epea zabalduko da (argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita) aukeratutako pertsona horiek hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezkoak ziren baldintzak egiaztatzeko balio duten dokumentuak (originalak edo benetako kopia) Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Erregistro Orokorrean aurkeztu ditzaten. Dokumentu hauek:

1. Nortasun Agiri Nazionala edo, kasuan kasu, pasaporte edo nazionalitatea egiaztatzeko beste edozein agiri. Aurkeztuko den agiriak indarrean egon behar du.

Hautaketa probetan espainiarren edo Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako nazionalen ezkontide direlako edo ezkontidearen seme-alaba direlako parte hartu duten hautagaiek ahaidetasun lotura egon badagoela egiaztatzen duten agiriak, agintari eskudunek eginak, aurkeztu behar dituzte. Horrez gain, lotura hori duen ahaide espainiarraren edo Europar Batasuneko nazionalaren zinpeko aitortpena edo promesa ere aurkeztu behar dute. Aitortpen horretan,

ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela eta, kasuan kasu, hautagaia ezkontidearen kontura bizi dela edo bere kargu dagoela adierazi behar du espainiarrak edo Europar Batasuneko nazionalak.

2. Egiatagiri medikoa, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Lan Osasuneko Zerbitzuak emandakoa. Han, argi adierazi beharko da pertsonak zereginak gauzatzeko gaitasun funtzionala baduela eta zeregin horretan jardutea galaraziko dion inolako gaixotasun edo muga fisiko zein psikikorik ez duela.

3. Zinpeko aitortpena edo promesa, zera dioena: ez dela diziplina espedienteren baten bidez Administrazio Publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen bateko zerbitzutik banatua izan, eta ez duela, ebazpen judizialen baten bidez, gaitasungabetze erabateko edo berezirik enplegu edo kargu publikoetan aritzeko, banatu edo gaitasungabetu den kidegoan edo eskalan sartzeko. Era berean, ezintasunarekin edo bateraezintasunarekin lotutako legezko arrazoiren bat ez duela egiaztatzeko zinpeko aitortpena edo promesa ere aurkeztu beharko da.

Espainiar herritartasuna ez duenak, berriz, gaitasungabetuta edo pareko egoeraren batean ez dagoela eta bere Estatuan enplegu publikoan jardutea galarazten dion diziplina zigorrik edo antzekorik jaso ez duela egiaztatzeko zinpeko aitortpena edo promesa aurkeztu beharko du.

Baldintza hori betetzen dutela egiaztatzeko, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritzak inprimaki normalizatu bat jarriko du aukeratutako pertsonen eskura.

4. Eskatutako titulua edo titulua egiteko tasak ordaindu direla erakusten duen egiaztatzea.

Hautagaiek, baldin eta atzerrian eskuratutako titulua badute, titulu hori homologatuta edo baliokidetzat dagoela ziurtatuko duen egiaztatzea aurkeztu behar dute.

5. Eskatutako berriazko baldintza betetzen dituztela frogatzeko egiaztatzea.

Deialdi hauetako 2.1.6 atalean ezarritako baldintza bete behar dela, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuak betetzeko deialdia delako, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Nolanahi izanda ere, atzerritarren diren edo beste nazionalitate bat duten herritarrek, aurrekoaz gain, zigor-kondenen gaineko ezezko egiaztatzea aurkeztu beharko dute, beren jatorrizko herrialdeetako edo herritarren diren herrialdeetako agintariek emana, 2015eko abenduaren 11ko 1.110/2015 Errege Dekretuak, Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala arautzekoak, 3. artikuluko 1. atalean aipatutako delituak direla-eta.

9.2. Halabeharrezko arrazoirik izan gabe, hautagaiek ez badituzte aipatutako agiria adierazitako epean aurkeztu edo eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen, hautaketa prozesuan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte, eta haien jarduketa guztiak baliorik gabe geratuko dira. Eta, beraz, ezin izango dira izendatu. Horrezaz gainera, parte hartzeko eskaeretan datu faltsuak ematearen gaineko erantzukizuna ere izan dezakete.

Eskatutako betekizunak betetzen dituztela frogatzeko egiaztatzeak aurkeztu ez badute, eta aukeratuek lanpostuari uko egiten badiote praktiketako funtzionario edo karrerako funtzionario (praktika aldirik aurrekusi ez den deialdietan) izendatu aurretik, Zuzendaritza Batzordeak, deialdiko lanpostuak beteko direla ziurtatzeko, azken kalifikazioetatik ondorioztatutako lehentasun ordenara jo dezake aukeratuak izan diren beste batzuk izendatzeko. Horiei 20 egun naturaleko epea eman behar die 9.1 oinarrian zerrendatutako agiriak aurkez ditzaten.

Hamargarrena. Izendatzea, praktika aldia –kasuan kasu– eta lanpostuaz jabetzea.

10.1. Aurreko oinarrian zerrendatutako agiriak aurkezteko 20 egun naturaleko epea igaro eta gero, edo epea amaitu aurretik, baldin eta aukeratutako guztiak baldintzak betetzen dituztela egiaztatu badute, hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira.

10.2. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu praktiketako funtzionarioak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da izendapena; eta, horren osagarri, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko iragarki taulan ere bai.

Praktiketako funtzionarioa Administrazioak ezarriko duen egunean hasiko da lanean. 10 egun baliodun igaro behar dira, gutxienez, izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik lanean hasteko egunera arte.

Praktiketako funtzionario izendapena indarrean izango da aukeratua praktiketako funtzionario lanean hasten denetik karrerako funtzionarioaren lanpostuaz jabetzen den arte. Lanpostu horretaz jabetzeko, prestakuntza ikastaroa edota dagokion praktika aldia egin eta gainditu behar ditu.

Funtzionario postura halabeharrezko arrazoirik izan gabe sartzen ez direnek praktiketako funtzionario izendatzeari uko egiten diotela joko da.

10.3. Praktika aldia edota prestakuntza ikastaroa.

10.3.1. Praktiketako funtzionarioek praktika aldia egingo dute. Aldi horrek, 6 hilabete iraungo du eta hautaketa prozesua osatzen duen beste fase bat izango da. Aldi horretan gai edo ez-gai kalifikazioa lortuko da, hamargarren oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.

Hautagaiak praktiketako aldia egiten ez badu, edota gainditzeko eskatzen den gutxieneko gaitasuna egiaztatzen ez badu, praktiketako funtzionario izateari utziko dio eta plaza berrian karrerako funtzionario izendatzeko izan ditzakeen eskubideak galduko ditu.

Praktika aldiaren garapena baloratzeko asmoz, Batzorde Ebaluatzailea osatuko da.

Batzorde Ebaluatzailea hautatze prozesuko epaimahai kalifikatzaileko hiru partaidek osatuko dute.

10.3.2. Praktika aldia egitea hautaketa prozesuko beste aldi bat gehiago izango da, eta bazter-tzailea izango da.

10.3.3. Praktika aldia ebaluatzeko, Ebaluazio Batzorde bat eratuko da. Epaimahai Kalifikatzailearentzat ezarritako funtzionamendu arau berberak izango dira Ebaluazio Batzordea ere arautuko dutenak. Batzorde horrek gutxienez hiru kide izango ditu, guztiak karrerako funtzionarioak. Praktika aldia ebaluatuko du, eta hautagai bakoitza gai edo ez gai den esango du.

Praktiketako funtzionario izendatzeko ebazpen berean izendatuko dira Ebaluazio Batzordeko kideak, eta publizitate bera egingo zaie bi izendapenei.

Praktiketako funtzionario guztiak tutorea izango dute, Ebaluazio Batzordeak izendatuta. Tutoreak praktiketako funtzionarioen jardueren jarraipena eta txostena egingo du, eta txostena emango du, ezarritako ebaluazio irizpideekin bat. Ebaluazio prozedura jarraitua izango da praktika aldiak dirauen bitartean.

Praktika aldia bukatutakoan, praktiketako funtzionarioen gaineko txostenak eskatuko dizkie Ebaluazio Batzordeak tutoreei, praktika aldia irizpide hauen arabera ebaluatzeko:

- Hurrengo arloetan azaldutako gaitasunak:
 - Lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala.
 - Erantzukizun eta eraginkortasun sena.
 - Ikasteko interesa, gogoia eta ekimena.
- Hurrengo arlo hauek oinarri azaldutako gaitasuna:
 - Lan taldean integratzea.
 - Barne eta kanpo harremanetan egokitzea.

Ebaluazio Batzordeak, dagokion ebaluazioa egin eta gero, Hernaniko Udealeko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Presidenteri praktika aldia gainditu duten hautagaiak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena bidaliko dio.

Praktika aldia gainditu ez duten hautagaiak zuzenean baztertuko dira, eta karrerako funtzionario izendatzeko izan ditzaketen eskubideak galduko dituzte. Hori Zuzendaritza Batzordeak erabaki beharko du, ebazpen arrazoituaren bidez, aurrez hautagaiak esateko duena entzun eta gero.

10.4. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu karrerako funtzionarioak. Gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da izendapena; eta, horren osagarri, udaletxeko iragarki taulan ere bai.

Karrerako funtzionario izendatuak izan direnek gehienez hamar lanegun balioduneko epean hartuko dute kargua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean izendapena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbaitzen hasita.

Ezarritako epearen barruan kargua hartzen ez dutenek, eta horren kausa ezinbesteko kasua ez bada, deialditik eratorritako eskubide guztiak galduko dituzte, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko langile funtzionario bihurtzeari dagokionez.

10.5. Deialdian ateratako lanpostuak beteko direla bermatzeko, 9.2 oinarriko bigarren paragrafoan ezarritako prozedura aplikatu ahal izango du Zuzendaritza Batzordeak, bai eta oinarri horretan jasotako baldintzak gertatuz gero ere, kasu hauetan:

- a) Praktiketako funtzionario izendatua izan den izangaia praktika aldia egitera sartzen ez denean, ezinbesteko kasuren bat izan gabe (10.2 oinarriko azken paragrafoa).
- b) Izangairen batek praktika aldia gainditzen ez duenean (10.3 oinarriko azken paragrafoa).
- c) Karrerako funtzionario izendatua izan den izangaiak lanpostuaren kargu hartzen ez badu, horretarako ezarritako epearen barruan, ezinbesteko kasuren bat izan gabe (10.4 oinarriko azken paragrafoa).

Hamaikagarrena. Arau osagarriak.

Deialdi bakoitzari aplikagarri zaizkion oinarrietan jaso ez diren kasuetarako, hautatze prozesuek ondorengo lege hauetan ezarritakoa bete beharko dute: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan; Euskal Funtzio Publikoaren Legean (1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legea); Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea); Sektore Publikoaren

Araubide Juridikoaren Legean (2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea); Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea) (momentuz indargabetuak izan ez diren alderdietan eta indargabetzea gertatzen den bitartean); Estatuko Administrazioan Langileak sartzeko Arautegi Orokorrean (1995eko martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua, aplikazio osagarrikoa izango da); eta gai horretan indarrean diren gainerako arauetan.

Euskaraz eta gaztelaniaz testuen artean kontraesanak sortuz gero, euskaraz dagoen erreferentzia-testu oinarritzat hartuko da.

Hamabigarrena. Argitaratzea.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da deialdia, bere oinarri arautzaileekin batera. Gainera, Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da deialdiaren laburpen zehatza, informazio hau izango duena:

- Deialdia egin duen korporazioa.
- Hautaketa prozesuaren izena.
- Deialdiko lanpostu kopurua.
- Oinarriak eta deialdia argitaratu diren Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN eguna eta zenbakia.

Hamahirugarrena. Aurka egitea.

Deialdiak, oinarriak nahiz deialdietatik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetik eratorritako administrazioeko egintzak aurkatu egin ahal izango dituzte interesdunek, bi lege hauetan onartutako kasuetan eta moduan: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean (2015eko urriaren 1ekoa) eta Administrazioarekiko Auzien Eskumena arautzen duen 29/1998 Legean (1998ko uztailaren 13koa).

Xedapen gehigarri bakarra. Lan poltsak.

Praktiketako klinika laguntzaile funtzionarioaren izendapena egiten den unean, eskumena duen udal organoak ebazpena egingo du, klinika laguntzaileen lan poltsa osatuz oposizio-lehiaketa aldian parte hartu baina deialdian eskainitako plaza kopurua gainditzeagatik izendatu ez diren pertsonen zerrendarekin.

Poltsa hori gerora lanpostuak betetzeko oinarria izango da. Lan poltsako lehentasun ordena hautagaiek lortzen duten puntuazioaren arabera ezarriko da.

Une bakoitzean Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak lan poltsak eratu eta kudeatzeari buruz onartuak dituen irizpideak izango dira aplikagarri.

I ERANSKINA GAITEGI OROKORRA

- 1.- EAEko Autonomia Estatutua: I Titulua. (Euskal Autonomia Erkidegoaren kompetentziak.)
- 2.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena. Xedapen Orokorrak. Udalerria: lurraldea eta biztanleria.
- 3.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena. Udalerria. Antolaketa. Eskumenak.
- 4.- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako: tutoretza-esparrua, aplikazioa, printzipio orokorrak eta toki-entitateen eskumenak.

II ERANSKINA BERARIAZKO GAITEGIA

- 1-Larruazalaren eta larruazal-eranskinen oinarrizko printzipio anatomofisiologikoak. Patologia ohikoena.
- 2-Pazientearen/bezeroaren higieena eta garbitasuna. Teknikak eta indikazioak.
- 3-Gernu-aparatuaren oinarrizko ezaugarri anatomofisiologikoak. Patologia ohikoena.
- 4-Paziente inkontinentearekin lotutako teknikak.
- 5-Gorputzari eusteko eta mugitzeko oinarrizko printzipio anatomofisiologikoak. Patologia ohikoena.
- 6-Lekualdatzeko, mobilizatze eta noraezean ibiltzeko teknikak eta jarraibideak.
- 7-Presioagatiko ultzerak. Prestakuntza. Sintomak. Kokalekuak. Prebentzioa.
- 8-digestio-aparatuaren eta guruinen anatomia eta fisiologia.
- 9-Elikadura eta nutrizioa. Mantenugaien oinarrizko ezaugarriak. Berehalako printzipioak.
- 10-Dietak. Dieta motak.
- 11-Ahozko elikadura, enterala eta parenterala. Administrazio-teknikak.
- 12-Paziente terminalarekin lotutako erizaintzako zaintzak. Post-mortem zainketak. Teknikak. Tanatoriora eramatea.
- 13.- Aparatu kardiobaskularraren oinarrizko ezaugarri anatomofisiologikoak. Patologia ohikoena,
- 14-Bizi-konstanteen ezaugarri eta balio normalak eta patologikoak. Neurketarako eta erregistrarako materialak eta leku anatomikoak.
- 15-Balantze hidrikoa. Erregistroa.
- 16-Arnas aparatuaren oinarrizko ezaugarri anatomofisiologikoak. Patologia ohikoena.
- 17-Aerosolterapia, oxigenoterapia eta aireztapena. Oinarri eta teknika ohikoenak. Arnas fisioterapia.
- 18-Zahartzearen prozesu biologikoak. Adinekoarekin lotutako erizaintzako zainketak.
- 19-Lehen sorospenak: oinarrizko bizi-euskarria, odoljarriak, traumatismoak, erredurak.
- 20-Pazientearen unitatea: elementuak, pazientearen harrera eta ostatua, segurtasun- eta higieen-arauak. Ohea egiteko teknikak.
- 21-Salbuespenak. Motak, ezaugarriak eta biltzeko prozedurak.
- 22-Gaixotasun transmitigarrien epidemiologia: oinarrizko oinarriak. Sailkapena. Oinarrizko fisiopatologia. Ospitaleko infekzio edo infekzio nosokomial ohikoenak.
- 23.- Gaixotasun transmitigarriak prebenitzeko eta isolatzeko prozedurak: prebentzio-mailak. Isolamendu-teknikak eta -motak.
- 24.- Laginak biltzeko teknikak. Baliabide materialak. Garraioa. Osasun-arriskuak.
- 25-Infekzioak. Lanbide-gaixotasunak.
- 26-Zaharren ezaugarri psikologiko ohikoenak.
- 27-Antsietatea eta larritasuna. Gaixotasun baten definizioa, kausak eta faktore indartuak. Defentsa-mekanismoak.
- 28.- Gaixotasun kronikoak edo iraupen luzekoak dituzten pazienteen/bezeroen ezaugarri

psikologikoak eta beharrak

BIBLIOGRAFIA PROPOSAMENA

TÉCNICAS BÁSICAS DE ENFERMERÍA

Regina Cardelús Muñoz-Seca, Agustín García Picazo, Manuela Heredia Pereira Concepción Romo Sánchez. *Técnicas básicas de enfermería*. Madrid: macmillan education. ISBN:978-84-17218-69-0

HIGIENE DEL MEDIO HOSPITALARIO Y LIMPIEZA DEL MATERIAL

Emilio Cáceres Vázquez, Tania Amanda García de la Parra Bañares, Ana María Pérez Pérez. *Higiene del medio hospitalario y limpieza del material*. Madrid: macmillan education. ISBN: 978-84-17218-73-7

PROMOCIÓN DE LA SALUD Y APOYO PSICOLÓGICO AL PACIENTE

M.^a Henar Portillo Rubiales, Raquel M.^a Portillo Rubiales. *Promoción de la salud y apoyo psicológico al paciente*. Madrid: macmillan education. ISBN: 978-84-17218-77-5